

ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

Onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2021eko abenduaren 16an, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenan. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Karmelo Guridi Gallastegi zinegotziaren kargu-hartzea.
2. Onartzea, hala badagokio, 2021-11-25eko ohiko osoko bilkuraren akta, (11.2021).
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obra (baserri obra), Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko azaroaren 23an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obra, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko azaroaren 23an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Osoko Bilkurako ohiko bilkuren, 2022ko egutegia onartzea, puntua gai-zerrendan sartzea berretsi ondoren.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Blanca Olalde, HAZ-eko koordinatzailearen ukoa onartzea, puntua gai-zerrendan sartzea berretsi ondoren.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Batzorde informatiboetako eta kide anitzetako organoetarako kide berriak izendatzea, puntua gai-zerrendan sartzea berretsi ondoren.
8. Hala badagokio, presako gaiak.
9. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.

10. 2021ko urtarrilaren 1ean, zuzenbidezko biztanleriaren berri ematea: 11.428 biztanle.
11. Azaroaren 22tik abenduaren 10era bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 1182 zenbakitik 1256 zenbakira.
12. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udalbatzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2021eko abenduaren 13an

Alkateak

Izaro Elorza Arregui